



MAHLER 3

euskadikoorkestra.eus

3
Urria / Octubre
19:30

Pamplona / Iruña
BALUARTE

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular: **Robert Treviño**

KONTZERTINOA CONCERTINO

Mohamed Hiber

I BIOLINAK / VIOLINES I

Beatrice Gagliu (1) (5)
Xabier de Felipe (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Marie Héloïse Arbus (5)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Kamran Omarli
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (4)
Maite Abasolo
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Natalia Díaz
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (4)
Victor Bogdanov
Marc Sirera
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont
Hervé Michaud

KLARINETEAK CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Marcos Cruz (2)
Cristian Palau (2)
Adrián García Carballo (3)
Jean-Luc Casteret
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Bernabé García (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepeare

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Frédéric Boulan (5)
Daniel Ruibal

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Bakarlari-laguntzailea / Ayuda de solista
- (4) Lehen *tuttia* / Primer tutti
- (5) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal




musikene

Kontzertu-programa honetan Musikeneko Graduako hainbat ikaslek parte hartuko dute bi erakundeek sinatuta duten Jordá Gela lankidetzaz hitzarmenari esker. Alumnas/os de Grado de Musikene participan en este programa de conciertos gracias al convenio de colaboración entre ambas instituciones, denominado Jordá Gela.



ROBERT TREVIÑO
Zuzendaria
Director



**BILBOKO KORAL
ELKARTEA***
Abesbatza ° Coro



JUSTINA GRINGYTE
Mezzosopranoa
Mezzosoprano

* **ENRIQUE AZURZA**
Abesbatza sinfonikoaren zuzendaria
Director del coro sinfónico

JOSE LUIS ORMAZABAL
Ume-abesbatzaren zuzendaria
Director del coro infantil

EGITARAUA ^ PROGRAMA

|

GUSTAV MAHLER (1860-1911)

Sinfonía nº3 [99']

Argitaletxea / Edita: Breitkopf & Härtel

- I. Kräftig. Entschieden
- II. Tempo di Menuetto Sehr mässig
- III. Cómico (Scherzando) Ohne Hast
- IV. Sehr langsam - Misterioso
- V. Lustig im Tempo und keck im Ausdruck
- VI. Langsam - Ruhevoll - Empfundnen

Bilboko Koral Elkarteak eta **Justina Gringyte** mezzosopranoak bat egingo dute gaur Euskadiko Orkestrarekin, **Gustav Mahler** maisuaren **3. Sinfonia** taularatzeko. Sorkuntza-lan aparta da, bai tamainan bai iraupenean eta, haren bidez, **Robert Treviño**ok beste urrats bat egin du bere helburuan: Mahlerren ziklo sinfonikoa zenbait denboralditan osatzea. Mahlerren *Hirugarrena*, nietzschetar eragin handikoa berau, obra ezin hobeia da Denboraldia inauguratzeko: erdigunean jartzen baitu Denboraldi honek gizaki sortzailea eta eraldatzailea, mundua mugiarazten duena bere bizi-esperientzien bidez, zeinak batzuetan espiritualak baitira eta, beste batzuetan, mundutarrak. Konpositore guztien artean, Mahler izan zen musikaren botere eraldatzailea hobekien ulertu zuenetako bat, eta gizakiaren bizitzako ibilbidea eta haren etapak, nahiak eta kezkek islatzen dituzten sinfonia zabaletan gauzatu zuen.

Mahlerrek bere obraren zati handi bat Atter aintziraren ondoko etxola batean sortu zuen, Austriako Alpeetako leku idiliko batean. Etxola hura Franz Löscheke eraiki zion 1894an, eta hark kontatu ohi zuen nola Mahlerrek «beti esaten zuen aintzirak bere hizkera propioa zuela, aintzirak hitz egiten ziola. Ostatutik ezin omen zuen aditu, eta, hortaz, etxe txiki bat behar zuen uraren bazter-bazterrean. Aintzira entzuten zuenean, errazago konposatzen zuen, eta obrak guztiz osatuta ateratzen zitzaizkion burutik». 3. *Sinfonia*, 1896an amaitua, aintzira hartatik osoki «jaino» zen lehen sorkuntza izan zen. Uda hartan, Bruno Walter zuzendaria bisitatzerako joan eta inguruaren edertasunak mirespena eragiten ziola adierazi zionean, Mahlerrek gomendatu zion ez zezala denbora galdu hari begira. «Alferrik da; oso-osorik jaso dut nire *Hirugarrenean*», halaxe esan omen zion.

«Imajina ezazu obra bat halako handitasuna duena, ezen unibertsoa osorik islatzen baitu», idatzi zion Mahlerrek bere maitale Anna von Mildenburgiri. 3. *Sinfoniaren* sei mugimenduetako bakoitza unibertso horretako parte banari mintzatzen zaio: naturaren indarrei, landareei, animaliei, gizakiari, espirituei... Harik eta azken mugimenduan, ikuspegi panteista horren gailurrean, Mahlerrek maitasunari kantu bat eskaintzen dion arte, haren munduari zentzua ematen dion eta bateratzen duen gaia baita. Garai hartan, Mahler Nietzsche irakurtzen aritu zen, eta haren bi liburuk funtsezko eragina izan zuten *Hirugarrenean*. Batetik, *Zientzia alaia* (1882) laburbilduma: lan horren bidez, filosofo alemaniarrek amaitutzat eman zuen bere garai pesimista, metafisika kristauaren suntsipenean zentratua, gizakiarentzat balio berriak eraikitzeko etapa alai eta positibo bati ekiteko. Eta, bestetik, *Honela mintzatu zen Zaratustra* (1883-85), liburu gailena: lan horretatik atera zuen Mahlerrek laugarren mugimenduan kontraltoak kantatzen duen testua.

Bitxia bada ere, ia berdinak dira Mahlerrek naturako indarretan zeharreko nietzschetar ibilbide hori marrazteko eraikitako egitura eta kutsu erlijioso ukaezineko aurreko sinfonian, *Berpizkundera* izenekoan, erabilitakoa. Bi sinfoniak eskala handiko sarrerako mugimendu batekin hasten dira, martxa-elementuak dituena, eta haien ostean etenaldi handi bat egin behar dela adierazten du Mahlerrek. Bigarren mugimenduak laburrak eta minuet baten izaerakoak dira, eta hirugarrenak *scherzo* forma hedatukoak, *Des Knaben Wunderhorn* (Mutikoaren adar magikoa) laneko abestietatik eratorritako materialekin, animaliak tartean direla: arrainak 2. *Sinfonian*, eta txoriak *Hirugarrenean*. Bi sinfonietako laugarren mugimenduek kontralto bakarlari bat dute protagonistatzat. Bi lanen arteko

desbideratze formala amaieran gauzaten da: *Bigarren*arena ikuspegi apokaliptiko bat da, instrumentu hutsez hasten dena eta berebiziko orri koral batekin burutzen dena. *Hirugarren*aren azken bi mugimenduek, ordea, logika horri buelta ematen diote: lehenik mugimendu koral labur bat dago (*Wunderhorn* laneko testuarekin), instrumentu hutsezko *adagio* bati bide ematen diona. Bruno Walterrek eman zuen hitzik ezari buruzko azalpen bat, bere buruari galdera hau egin zionean: «Zer lengoaiak adieraz dezake hobeki maitasun zerutarra musikak berak baino botere eta indar handiagoz?».

Uste izan da *Hirugarren*arekin, eta Nietzscheren ideien bitartez –hura egiazki ateoia baitzen–, Mahlerrek eboluzioaren erretratu musikal bat eraiki zuela, gai hori puri-purian baitzegoen urte batzuk lehenago Darwinen teoriak argitaratu zirenetik, baina, bizitzaren ikuskera sekular hori islatu nahi izan bazuen ere, Mahlerrek ezin izan ziola bere espiritualtasun latenteari eutsi. *Hirugarren*ean, bigarren mugimenduko loreetatik (landareak ordezkatzan dituztenak) hirugarreneko animalietara igarotzen da eboluzioa. Baina gizakia animalien munduan txertatzen da jada, mugimenduaren atal nagusiaren bidez, non ehiza-tronpa bat agertzen den. Gero, kontraltoak, laugarren mugimenduan, gizaki nahigabetuaz hitz egiten du, Nietzscheren testua baliatuta.

Hala ere, Mahlerrentzat, eboluzioak gizakitik haratago joaten jarraitu behar du eta, horregatik, maitasunaz hitz egiten da sinfoniaren amaieran. Baina zer esan nahi zuen, zehazki, maitasunak Mahlerrentzat? Horren zantzua da, azken mugimendua baino lehen, haur-aingeruak sartzen dituela, Jesu Kristori eta Done Petri buruzko aipamen esplizituak egiten dituztenak. Sinfonia honen ateismoa defendatzen dutenen artean oraindik ere nolabaiteko eztabaida dago, baina itxuraz argi dago Mahlerrentzat maitasuna Jainkoa dela, eta horren erakusgarri da argiro aitortu ziola Mildenburgi azken mugimendu horri *Jainkoak* esaten didana deitzea pentsatu zuela.

Hamabost urte igaro ziren 3. *Sinfonia* osorik estreinatuta arte. 1896an eta 1897an, bigarren mugimendua interpretatu zen Berlinen, Leipzigen eta Budapesten, eta, oro har, harrera ona izan zuen. 1897ko kontzertu batean, hura ere Berlinen, hirugarren eta seigarren mugimenduak gehitu ziren, baina kritikak harrera txarra egin zien, eta horren ostean ez zen interpretazio gehiagorik egin hurrengo bost urteetan. Richard Straussek mugitu zituen hariak sinfonia osorik entzun ahal izan zedin, München, 1900ean eta 1901ean, *Bigarren Sinfonia* eta *Laugarren Sinfonia* entzun ondoren. Bi obra horiek txunditu egin zuten, eta *Hirugarren Sinfoniari* buruz entzun zuenak eragindako jakin-mina zela eta, Straussek lehen interpretazio osoa antolatuta zuen Allgemeine Deutsche Musikvereinaren (Alemaniako Musikaren Elkarte Orokorra) jaialdiaren barruan, bera erakundearen presidentea izaki. Estreinaldia 1902ko ekainaren 9an egin zen, Renaniako Krefeld hirian, eta arrakasta handia erdietsi zuen. Horri esker, interpretazio ugari egin ziren Alemanian eta Austrian. Horietako bat Vienan izan zen, 1904an. Arnold Schoenberg hunkitu egin zen emanaldi hartan izan zenean, eta idatzita utzi zituen bere sentimenduak: «Idealen aldeko borroka sentitu nuen; etsiaren mina sentitu nuen; ongiaren eta gaizkiaren indarrak elkarren aurka gudukatzen ikusi nituen; emozio-ekaitz batek astindutako gizon bat ikusi nuen, barne-harmonia konkistatzeko borrokan. Gizaki bat sentitu nuen, drama bat, egiarik ankerrena!».

La **Sociedad Coral de Bilbao** y la mezzosoprano **Justina Gringyte** se unen hoy a Euskadiko Orkestra para abordar la **Sinfonía n.º3** de **Gustav Mahler**, una creación inmensa tanto en tamaño como en duración con la que **Robert Treviño** da un paso más en su objetivo de completar el ciclo sinfónico mahleriano a lo largo de varias temporadas. Con su influjo nietzscheano, la *Tercera* de Mahler es además una obra perfecta para inaugurar una Temporada que pone en su centro al ser humano que crea y transforma, aquel que mueve el mundo a través de sus experiencias vitales, unas veces espirituales y otras mundanas. Entre todos los compositores, Mahler fue uno de los que mejor entendió el poder transformador de la música, y lo plasmó en extensas sinfonías que reflejan el recorrido vital del ser humano y sus etapas, anhelos y preocupaciones.

Gran parte de la obra de Mahler vio la luz en una cabaña junto al lago Atter, un idílico rincón de los Alpes austríacos. Según Franz Losch, quien le construyó esa cabaña en 1894, Mahler «siempre decía que el lago tenía su propio lenguaje, que el lago le hablaba. Desde la posada no podía oírlo, así que necesitaba tener una pequeña casa justo en la orilla. Cuando escuchaba el lago, componía con más facilidad y las obras fluían completamente formadas desde su cabeza». La *Sinfonía n.º3*, finalizada en 1896, fue la primera creación que «nació» por completo del lago. Cuando Bruno Walter fue a visitarlo ese verano y se mostró admirado por la belleza del entorno, Mahler le indicó que no perdiera el tiempo observándolo. «Es inútil; lo he recogido íntegramente en mi *Tercera*», aseguraba.

6 «Imagínate una obra de tal magnitud que llegue a reflejar el universo entero», le escribió Mahler a su amante Anna von Mildenburg. Cada uno de los seis movimientos de la *Sinfonía n.º3* habla a una parte de ese universo: a las fuerzas de la naturaleza, a las plantas, a los animales, al hombre, a los espíritus... Hasta que en el último movimiento, cúspide de esta visión panteísta, materia que da sentido y unifica su mundo, Mahler eleva un canto al amor. Por aquella época, Mahler había estado leyendo a Nietzsche y dos de sus libros ejercieron una influencia fundamental sobre la *Tercera*: el compendio *La gaya ciencia* (1882), con el que el filósofo alemán dio por finalizado su periodo pesimista, centrado en la destrucción de la metafísica cristiana, para dar comienzo a una etapa alegre y positiva de construcción de nuevos valores para el ser humano; y *Así habló Zaratustra* (1883-85), libro capital del que Mahler extrae el texto que canta la contralto en el cuarto movimiento.

Curiosamente, la estructura que levanta Mahler para trazar este recorrido nietzscheano por las fuerzas de la naturaleza es prácticamente idéntica a la de su anterior sinfonía, la *Resurrección*, que tiene una pátina innegablemente religiosa. Ambas sinfonías comienzan con un movimiento introductorio a gran escala que incorpora elementos de marcha, y Mahler indica que debe guardarse una gran pausa tras ellos. Los respectivos segundos movimientos son breves y con carácter de minueto, y los terceros son una forma extendida de *scherzo* con materiales derivados de canciones de *Des Knaben Wunderhorn* (El cuerno mágico de la juventud) que involucran a animales: peces en la *Sinfonía n.º2*, y pájaros en la *Tercera*.

Los cuartos movimientos de ambas sinfonías tienen como protagonista a una contralto solista. La desviación formal entre las dos obras llega al final: el de la *Segunda* es una visión apocalíptica que comienza siendo puramente instrumental y se corona con una grandiosa página coral, mientras que los dos últimos movimientos

de la *Tercera* dan la vuelta a esa lógica: primero escuchamos un movimiento coral breve (con texto procedente del *Wunderhorn*) que da paso a un *Adagio* puramente instrumental. La explicación a esta ausencia de palabras la dio Bruno Walter, al preguntarse: «¿Pues qué lenguaje puede expresar el amor celestial con más poder y fuerza que la música misma?».

Se ha considerado que con la *Tercera*, y a través de las ideas de Nietzsche –que ciertamente era ateo–, Mahler construye un retrato musical de la evolución, un tema candente desde la publicación de las teorías de Darwin unos años antes; pero que, aunque quiso reflejar esta concepción secular de la vida, Mahler no pudo reprimir su espiritualidad latente. En la *Tercera*, la evolución pasa de las flores (que representan las plantas) en el segundo movimiento a los animales en el tercero. Pero la humanidad ya se inserta en el mundo de los animales, a través del episodio central del movimiento en el que hace su aparición una trompa de caza. Luego, la contralto habla de la humanidad atormentada en el cuarto movimiento empleando el texto de Nietzsche.

Sin embargo, para Mahler la evolución debe continuar más allá de la humanidad, y por ello el final de la sinfonía habla del amor. ¿Pero qué significaba exactamente el amor para Mahler? El hecho de que introduzca unos ángeles infantiles justo antes del último movimiento, haciendo referencias explícitas a Jesucristo y San Pedro, nos debería dar una pista. Aunque sigue existiendo cierta controversia entre quienes defienden el ateísmo de esta sinfonía, parece claro que para Mahler el amor es Dios, y así lo reconoció meridianamente al confesarle a Mildenburg que había pensando en llamar a este movimiento final *Lo que Dios me dice*.

Habrían de pasar 15 años para que la *Sinfonía n.º 3* se estrenase completa. En 1896 y 1897 se interpretó el segundo movimiento en Berlín, Leipzig y Budapest, y en general fue bien recibido. En un concierto en 1897, también en Berlín, se añadieron los movimientos tercero y sexto, con una muy mala recepción de la crítica, y tras esta no hubo más interpretaciones en los cinco años siguientes. Sería Richard Strauss quien movió los hilos para que la sinfonía se pudiera oír completa, tras escuchar las sinfonías *Segunda* y *Cuarta* en Múnich en 1900 y 1901. Impresionado por ambas obras, e intrigado por lo que había oído hablar sobre la *Tercera Sinfonía*, Strauss organizó la primera interpretación completa dentro del festival anual de la Allgemeine Deutsche Musikverein (Asociación General de la Música Alemana), de la que era presidente. El estreno tuvo lugar el 9 de junio de 1902 en la ciudad renana de Krefeld y obtuvo un enorme éxito, lo que propició nuevas interpretaciones en Alemania y Austria. Una de ellas fue en Viena, en 1904. Arnold Schoenberg, que asistió a ella conmovido, dejó por escrito sus sentimientos «Sentí la lucha por los ideales; sentí el dolor del desilusionado; vi a las fuerzas del bien y del mal enfrentarse entre sí; vi a un hombre zarandeado por una tormenta de emociones luchando por conquistar la armonía interna. ¡Sentí a un ser humano, un drama, la verdad, la más despiadada verdad!».

————— MIKEL CHAMIZO

HURRENGO ABONU KONTZERTUA • PRÓXIMO CONCIERTO DE ABONO

BRAHMS
SHOSTAKOVICH

Azaroa 7 Noviembre | 19:30



SARRERAK ENTRADAS

10€ < 38€

euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla





GURE JENDEA, GURE KULTURA

Bihotza gure lurrean eta arima munduari zabalik. Horrelaxe babesten dugu geurea. Izan ere, nork bere burua ezagutuz eta estimatuz soilik ezagutu eta estima ditzake besteak.

Horregatik, zuri esker, atek zabaltzen ditugu egunero, gure lanaren bidez kulturari eta garen bezalakoak izanarazten gaituen jendeari laguntzeko, eta, pausoz pauso, banku kooperatiboa garen aldetik, gure helburua betetzeko: gizarte bidezkoagoa, irekiagoa eta solidarioagoa lortzen laguntzea, tokikoa eta unibertsala eskutik doazen mundu batean.

Bada beste modu bat.

NUESTRA GENTE, NUESTRA CULTURA

Con el corazón en nuestra tierra y el alma abierta al mundo, así defendemos lo nuestro, y es que solo sabiendo lo que eres es posible conocer y apreciar lo que son los demás.

Por eso cada día, gracias a ti, levantamos el telón para apoyar con nuestro trabajo a la cultura y a la gente que nos hace ser como somos, paso a paso hacia nuestro objetivo como banca cooperativa, un mundo donde lo local y lo universal se dan la mano para formar una sociedad más justa, abierta y solidaria.

Hay otra forma.



LABORAL
kutxa